



*Garbiñe  
Muguruza*

**“Badut Rion  
egoteko  
itxaropena”**

**ORAIN DUZU AUKERA!**

**matrikula zabalik**

[www.aek.eus](http://www.aek.eus)

**aek**

Sostoa 1, 1. solairua Telefonoa: 943 201 379 [eibar@aek.eus](mailto:eibar@aek.eus)

# KENKO

<ZURE OSASUN GUNEA • TU ESPACIO DE SALUD>

## **KENKO** **Zure Osasun Gunea** **familia guztiarentzat osasun** **zerbitzu zabalarekin**

Eta gainera, KIROL zerbitzu bereziak:

- **Fisioterapia**
- **Osteopatia**
- **Psikoneuroinmunologia Klinikoa**
- **Nutrizioa**
- **Entrenamendu Pertsonalizatuak**
- **Taldeko Kirol Jarduerak**
- **Martxa Analiak**
- **Heziketa Emozionala**
- **Coaching-a**

943 50 88 19 / 622 14 58 58

**Estaziño, 8**

info@kenkogunea.com  
www.kenkogunea.com




**KIROLA OSASUNA  
DELAKO!**

**KIROLA OSASUNEZ  
EGIN BEHAR DELAKO!**

# etakitto.eus



- Herriko aktualitatea jarraitzeko
- Argazki-bildumak ikusteko
- Euskara elkarteko proiektu guztiei buruzko informazio eguneratua etengabe jasotzeko
- Zorion-agurrak ■ Zinea
- Iragarki laburrak ■ Berbetan
- Farmaziak ■ Kultur-agenda



etakitto.eus



Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:**

Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**

erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**

elkartea@etakitto.eus /  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Ana Aizpurua, Itziar Albizu,  
Jose Luis Gorostegi, Silbia  
Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:**

Ana Aizpurua.

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA**

**MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:**

Leire Iturbe eta S. Hernandez.

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia  
eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TFNOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Cecilia Casla

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.100 ale.

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.

ISSN: 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\*k ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien  
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA  
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

# Eskutitzak

## Eskutitzak idazteko oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zerbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gaituzten duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu irain-

garririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzukizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.eus

Erredakzioa

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**KUKU.-** Leloa, inuzentea, mozoloa. "Kukua izan ez balitz, diru asko irabaziko eban".

**KUKU EGIN/JO.-** Amore eman, etsi. "Kuku jo dau, ezin dau gehixago".

**KUKULUMIXO EGON.-** Kukubilko, hotzagatik edo bildurratgatik kokilduta egon. "Orduetan egon da kukulumixo".

## astean esanak

"Aurkikuntza bat izan da euskara ikastea, eta neure nortasuna deskubritu dut. Erdal kulturaren pisua hain handia da, modu batean zapaldu egiten duela euskal kultura. Pena ematen dit zenbat jendeak galzten duen aukera hori. Ahalegin handiagoa egin beharko litzateke erdaldukan euskarara ekartzeko. Administrazioan ere, batik bat osasun arloan; izan ere, oso garrantzitsua da pertsona batek mina edo sentimendua adierazteko garaian bere hizkuntzan adieraztea"

(GEMMA ZABALETA,  
PSE-EEKO KIDEA)

"Euskara batua beharrezkoa da, baina hizkuntzaren zati bat besterik ez, euskaldun guztiok elkartzan garenean bata besteari erraz ulertzeko modua. Baina hizkuntza ere bada lagun artean egoteko eta gure sentimenduen adierazteko. Eta kasu horietan gure euskalkia ateratzen zaigu. Jendeari kentzen badiogu euskalki hori eta euskara batua sartzen badiogu, gertatzen da gertatzen ari dena: euskara eskolako hizkuntzarekin lotzen duela jendeak, ingelesa balitz bezala. Eta ez dute erabiltzen. Horregatik, euskalkia galtean galtean da euskara"

(KOLDO ZUAZO, HIZKUNTZALARIA)

"Gerrak fabrikatu eta asmatu egiten dira: aberatsek antolatzen dituzte eta pobreek galdu. Historikoki arrazoi ideologikoen edo politikoen nahiz lurraldetasunarekin lotutakoek piztu badituzte ere, kudeaketa beti egon da negozioan oinarrituta. Hain justu, kapitalismoa etengabeko gerran oinarritzen da, gerrak ezinbestekoak direlako ekoizpenaren makineria guztiak funtziona dezan. Sistema kapitalistaren garapenaren fase bat da etengabeko gerra. Segurtasunik gabeko egoerak sortzeko beharra dago eta horregatik asmatu behar dira etsaiak"

(CESAR MANZANOS, SOZIOLOGOA)

## 87 lagun alkartu ziran Gureak-ekuen bazkarixan

Urteroko moduan, Gureak lantegi-kuendako bazkarixa prestatu eben aurreko zapatuan Auzokoak alkartekuak. Aurten 87 lagun alkartu ziran bazkarixan eta, herriko enpresa eta alkartiak emondako laguntasunari esker, juandako guztieri opari-poltsa bana emon zetsen eta, gaiñera, beste 40 premixo gehixago zozketatu zittuen, Asier Cuevas korrikalari-xak lagunduta. Urkusu Gain, Erdi Bana, Edozer, Dorrepe, Jaiki, Denon Sahatsa eta Bekuak alkarte gastronomikuak osatzen daberen Auzokoak alkartiak 1981. urtian ekin zetsan Errege Egunaren osteko zapatuan bazkari berezi hori antolatziari.



Zazpi alkarte gastronomikuak urtero antolatzen daberen bazkarixan oinguan Asier Cuevas izan zeben laguntzen. **Leire Iturbe**

Argazki-bilduma:  
[www.etakitto.eus/mediateka/argazki-bildumak](http://www.etakitto.eus/mediateka/argazki-bildumak)



*biztanle gehixago dittu Eibarrek iazko urte hasieran baiño. Oingo kopurua 27.493 biztanlekua da, 14.168 emakumezko eta 13.325 gizonezko. Eibarrek 27.439 biztanle zittuan 2013aren hasieran eta biztanle bat gehixago 2014kuan. Iazko hasieran 26 biztanle galdu zittuan eta oin gora egin dogu.*



laboral kutxa  
3035 0235 2223 5003 8982

## San Kristobalerako sarrerira itxitta

Inguru horretan egiten diharduen kanalizaziño biharrak eraginda, Ubitxatik San Kristobal kalera juateko sarrerira trafikua erantzat itxitta dago eta holan segiduko dau hillaren 19ra arte. Horregaittik, errepidia itxitta dagan bittartian, gidarixak Fray Martin Mallea kaletik sartu biharko dira. Horrekin batera, biharrak amaittu bittartian Udalbus-aren ibilbidia aldatuko danez, biharran dabizen bittartian ez da zerbitzurik eskinduko San Kristobalgera geralekuan.



## Errefuxiatuerei laguntzeko lokal billa

Siria, Lesbos eta Calais-eko errefuxiatuendako laguntza bidaltzeko gauzak batu nahi dittue CARE Eibarko Errefuxiatuerei Laguntzeko Komitekuak eta hórretxek jasotzeko lokal billa dabilta. Baten bat lokala lagutzeko prest egonez gero 667317853 eta 637865709 telefonuetara deittuta (astelehenetik barixakura 12:00etatik 19:00etara) ipiñi leike alkartekuekin kontaktuan. Horrez gain Facebooken orrixa dake ([www.facebook.com/care.eibar](http://www.facebook.com/care.eibar)) eta [care.eibar@gmail.com](mailto:care.eibar@gmail.com) helbidera be idatzi leike.

## JON ARRUABARRENA GARCIA

(2015-XII-31)

ZURE irribarrę eta samurtasuna  
bętirako izango dira  
GURE ARTEAN.

La Salle - Isasi Mendizaleak



## Biharrian hasitta

Ubitxa kalian azaruan zabaldu eben Biharrian espazioak ([www.biharrian.com](http://www.biharrian.com)) "Biharrian gara!" programiari ekingo detsa bixar, Alberto Etxebarrieta bilbotarrak (Sinpatron) eskinduko dabena moda-diseinuko taillarrarekin (10:30xetik 14:00xetara eta 15:30xetik 18:30xera). Taillarraren bigarren zatixa hillaren 22xan emongo dabe. Domekan, barriz, "Emak bakia!" Oscar Alegriaren filma proiektauko dabe eta, jarraixan, zuzendarixarekin mahai-ingurua hasiko da. Urtarrillerako antolatutako beste jarduerak honetxek dira: moda diseinadorien erakusketa azokia ("Showroom Market"), hillak 23an; Ainara LeGardonen kontzertua, 29xan; eta moda diseinorako enpresa zelan sortu eta bideratu ikasi nahi dabene-dako kurso laburra, Want Coop-en eskutik, 30ian.

Asmua hiru hillebetian garatzeko programaziño kulturalarekin sendotzia da eta, horretarako, urtarriletik martxora bittartian moda diseinua, diseinua grafiko eta industrialia eta arkitekturia landuko dittue. Bestiak beste behin-behiñeko liburudendia eukiko dabe zabalik eta, horrez gain, musika emanaldixak, hitzaldixak, proiekiñuak eta ikastaro laburrak be eskinduko dittue.

## Turismo-eragille publikuen bisita



Geoparkeko eta Debemeneko ordezkariexkin batera Debabarreneko 8 udalerrixetako ordezkariak osatzen dabena Turismo-eragille Publikuen Mahaiko kidiak eskualdian bisita teknikua egin eben martitzenian, baliabide turistiko nabarmenenak eta eskintza turistikua bertatik bertara ezagutzeko asmuarekin. Hurrengo hitzordua FITUR Nazioarteko Turismo Azokaren harira eukiko dabe, urtarrillaren 20 eta 21ian.

## autuan



### AMAÑAKO JAIXAK

Amañako Jaixetako Gabonetako zozketia egin eben aurreko barixakuan eta otarra 0131 zenbakixari egokitu jakon. Urko Azpi soziedadekuak izan dira saridunak, zorionak eta on egin!

### BIRJIÑAPEKO OTARRA

Birjiñape tabernan Gabonetako loterixarekin batera otarraren zozketia egin eben, baiña oindiok ez da irabazlerik agertu. Saritutako zenbakixa 140 izan zan, beraz zozketarako txartelak erosi zittueneri etxian ondo begiratzeko eskatzen dabe, irabazliari sarixa emon ahal izateko.

### MOGEL ISASIKO LOTERIXIA

Mogel Isasiko ikasliak saldu eben Gabonetako loterixak sarixa daka. Jokatutakua bueltan jasotzeko ikastetxetik pasau leike, astelehenetik aurrera, goizeko 11:00ak eta 13:00ak bittartian.

**Funeraria-Ehorztetxe**  
**Mugica**

<p><b>EIBAR</b></p> <p><b>Beilatokia</b>  <b>Funeuskadi Eibar:</b>                  Otaola, 27</p>	<p><b>ELGOIBAR</b></p> <p><b>Beilatokia:</b>  <b>SIGMA Industrialdea</b>                  (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p><b>Bulegoa Eibarko erdialdean</b></p> <p><b>Bulegoa Bidebarrieta, 20</b></p>	
<p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra</b></p> <p><b>943 20 19 51</b> <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> <p><b>GRUPO Funeuskadi</b></p>	

**MIREIA ORMAETXEA LUIS**  
 1. urteurrena: 2015-I-14

Gure ondotik joan zara, baina beti izango zaitugu gure bihotzean.


DAVIDen kuadrila

XABIER  
BADIOLA

Dibujo Eskolarekin elkarlanean

**kale izena****pertsonaiaren izana**

Urkizu kaletik hasi eta Estaziño kalera doan bideak (lehen Grabadores kalea zena) Bittor Sarasketa industria gizon ospetsuaren izena darama, aspaldi hantxe baitzegoen bere tailerra. **BITTOR SARASKETA** Eibarren jaio zen 1864. urtean, Azpiri izeneko baserrian. Gaztetan armagintza munduan hasi zen lanean, eta laster Eibarko armaginen artean onenarikoa izatera heldu zen. Gauza berrien bila ibili zen beti. Perfekzioa zuen helburutzat eta honen adibidea da bere lantegian ipinitako probategi berezia. Bere tailerretik irtendako armek ospe handia zuten. Alfonso XIII Espainiako Erregeak Bittor Sarasketarekin harremanak izan zituen. Kirolari aparta zen eta ehiza eta plater tiraketa oso gustoko zituen. Kirol honetan, Estatuko onenarikoa izan zen.

**Sahararren aldeko karabania**

Aurten be "Sahararen Aldeko 12. Euskal Karabana: Piztu Itxaropena!" abiatu dabe SEADen Aldeko "Otsailak 27" euskal alkartien koordinadoriak eta Eibar-Sahara Elkartekuak kanpainaarekin bat egin dabe, kanpamenduetarako premiñazko produktuak (arroza, pasta, lekaleak, azukria, atun eta sardiña latak, oli-xua eta konpresak) batzen. Kanpaina irtarillaren 30era arte iraungo dau eta lagundu nahi dabenak herriko supermerkatu eta dendetan (Villalba, BM, Isasi okindegixa, El Corte Ingles eta Ipuru, Urki eta Urkizuko Eroski) horretarako prestatu dittuen bilketa-puntuetan eukiko dau horretarako aukeria. Elgoibarren be kanpamenduetara bidaltzeko produktuak batzen dabilta Eroski bixetan eta Netto-BM dendan.

**Hiru Erregiak bisitan**

Urteroko moduan urtarillaren 5ian Hiru Erregiak Maguak bisitan etorri jakuzen. Ipuru kiroldegian umiak dantzan ikusi eta gero, Lambretta motorretan Untzagara bajau eta kabalgariari ekin zetsen. Aurtengo kalejiran, antortzak eruatzen dittuen umiak eta Eibarko Musika Bandak ez eze hainbat antzezlek hartu eben parte, jendia ahozabalik laga eben flamenko eta beste-lako figura erraldoiekin.

Argazki-bilduma: [www.etakitto.eus/mediateka/argazki-bildumak](http://www.etakitto.eus/mediateka/argazki-bildumak)**JUANI CARBALLO BERGARA**

(1958-X-27 / 2015-XII-25)

**Ikasleekin goxo izan zinen bezala  
Ikastolan hainbat urtetan,  
Ama Lurrak ere goxo har zaitzala  
Betirako bere besoetan.**

JOXE ANGELEN IPURUAKO LAGUNAK

## Jardunaldi barrixa Armerixan

Armerixa Eskoliak "Ondo egin-dako lana" programaren barruan saiaua antolatu dau urtarrillaren 25erako (astelehena), 18:00etatik aurrera. Saiuan "enpresa eredu eta erlaziño barri eta iraunkorraguen premiñeri buruz" egingo dabe berba eta, horretarako, Antonio Cancelo (Eroskiren sortzaillietako bat eta Arrasateko MCC presidente ohia) eta Angel Toña (Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailburua) gonbidatu ditue. Saiua gidatzen, barriz, gaur

egun Euskal Lan Harremanen Kontseiluko burua dan Tomas Arrieta enpresaburu ezaguna egongo da. Oinguan gaztelerez izango da jardunaldixa eta Armerixa Eskoliak gaixarekin interesa daken guztiak parte hartzera gonbidatu nahi ditte. Juan nahi dabenak aldez aurretik izena emon beharko dau (azken eguna urtarrillaren 22xa). Informaziño gehixagorako 943 20 32 44 telefono zenbakira deittu edo [www.armeriaeskola.com](http://www.armeriaeskola.com) helbidian begiratu leike.



## Aldaketak Lurraldebusen zerbitzuetan



Lurraldebus konpafiak eskintzen dittuan zerbitzuak bixartik aurrera Donostiako autobus geltoki barrixa erabiliko dabe eta horrek aldaketak eragingo dittu hainbat autobus-liniantan, tartian Eibar-Donostia (DB02) ibilbidia betetzen daben autobusak geltoki barrixaren barruan geralekua eukiko dabe; horrekin batera, aurrerantzian Bizkaia pasialekuan (Jose Antonio Agirre Lehendakaria zubixaren inguruan) eta Manuel Collado kalia be geralekua eukiko dabe (jaisteko bakarrik, maleta barik). Informaziño gehixagorako [www.lurraldebus.eus](http://www.lurraldebus.eus) helbidian begiratu.



Donostiako geltoki barrixak eragin dittu aldaketok.

*Duela urtebete joan zinen  
 baina egunero zaude gure oroipenetan,  
 gure elkarrizketetan  
 eta gure bihotzetan.*

*Zure kuadrillak maite zaitu.*

*Mireia Ormaetxea Luis  
 (15/01/14)*



# Eibarko XXI. KIROL SARIAK



**TALDE ARGAZKIA.-** Saritutako kirolari guztiak eta saria eman zutenak, ekitaldiaren amaieran guztiakin ateratako argazkian. Eurekin batera, kirolari lotutako jende asko izan zen Gabon Zahar egunean Coliseo antzokian antolatutako XXI. edizioan.



Sari Berezia  
TANIA NAGORNAIA



Gimnasia Erritmikoa  
OINARRIZKO KADETE TALDEA



Foballa  
EMAKUMEZKOEN TALDE NAGUSIA



Areto-foballa  
JONATHAN REDONDO



Arku tiraketa  
JUAN ARIZMENDIARRIETA



Atletismoa  
TOMAS VOUILLOZ



Automobilismoa  
RUBEN GONZALEZ



Errugbia  
NAHIA FERNANDEZ



Eskia  
AMAIA GARATE



Eskubaloia  
JOSE ALBERTO LAZARO



Golfa  
SERGIO IPIÑA



Herri-kirolak  
JOSE FRAN ARRILLAGA



Hiru-txirlo  
SERGIO RODRIGUEZ





Igeriketa  
ANDER IZAGIRRE



Judoa  
XABIER ARNAIZ



Karatea  
JESUS CASTILLO



Mendia  
JULIAN OLABE



Pilota  
JOSU ZUBIZARRETA



Saskibaloia  
ASER LARREATEGI



Silbestrimoia  
IÑIGO PEREZ



Squasha  
MIGUEL CABANILLAS



Tiro olinpikoa  
JOSE ANGEL SOLAS



Triatloia  
EDUARDO OIARTZUN



Txirrindularitza  
IMANOL MTNEZ & PABLO ZABALA



Wu-Shu  
JESUS MARI GUZMAN



Xakea  
ASIER ETXAGIBEL



Kirol Sustapena  
AZITAIN ERRETEGIA



Euskera Saria  
EIBAR ESKUBALOI



Waterpoloia  
URBATEKO EMAKUMEZKOAK



Urtero lez, Gabon Zahar egunean Eibarko Kirol Sarien banaketa egin zen Coliseoan. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako aukera hori aprobetxatu zen urte guztian zehar gure herriko kirol taldeek egiten duten lan nekazina saritzeko. 29 izan ziren saria jaso zuten kirolariak, bakoitzak modalitate bat ordezkatur.



**Eibar Foball Taldeko** nesken talde nagusiak Nazional 2. mailara igotzea lortu zuen.



**Urko 14 Alkideba** talde berriak Erregionaleko Preferente mailara egin zuen jautzia.



**Armagiñak JoTaKe 1.** Erregionaleko mailako igoera fasea jokatzeko txartela lortu du.



**Eibartarrak-ek** infantiletik Erregionalera arteko taldeak ditu. Argazkian kadeteak.



**Urkik ez du aurten** Erregionaleko talderik atera, baina neska-mutilekin jarraitzen du.



**Debabarrenako** talde nagusiak 2. B mailan dihardu eta harrobiko beste hiru talde ditu.



**Durangok** Kiroljokoa liga txapelketa irabazi zuen, baina Kirolbet Saria Ermura joan zen.



**Esmorgak** Kopa bereganatu zuen, finalean Txokori penaltietan irabazi eta gero.

**J.A. LASKURAIN**  
ASEGURU ARTEKARIA S.L. D.G.S. 1.408 - J

**BIDAIA ASEGURUAK**

R.A.C.V.N.-ren ordezkaritza

Urtzaile 1 (alboko sarrera)  
Telf. 943 70 28 87 / 943 20 37 13  
943 12 05 30 / Faxa. 943 70 28 87

**ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK**

**RAC**  
VASCO NAVARRO

**GASOLEOEN BANAKETA**

estación de servicio **kantoi** eibar

20.000 L.

2.000 L.

**24** ordu

**Otaola etorbidea, 13 -Bis**

Tfnoa. 943 20 73 74 / 94 671 02 77

**GAUEZ ZERBITZU AUTOMATIKOA**



**Katu Kalek** probintziako 2. mailara igo zuen azken jardunaldian liderrari irabazita.



**Ipurua Klubak** denboraldi bikaina egin du, Espainiako azpitxapeladun izateraino.



**Avia Eibar Rugbyak** mailari eusteko borrokan dihardu azken denboraldiotan.



**Nesken taldeak** ahalegin berezia egin du taldea osatu eta errugbia zabaltzeko.



**Somos Eibar Eskubaloiak** liga bereganatu zuen; aurtan ere goiko borrokan dabil.



**Haritzak** Gipuzkoako Kopa irabazi zuen eta ligako goiko postuetan dihardu.



**Kalamuako** judoekek maila eman dute jokaturako torneo guztietan: Andorran sei domina.



**Jiu Jitsuko Espainiako Kopa** ekarri zuten Eibarrera, hor ere 11 domina eskuratuz.



**ZURICH**

**Lejardi S.L.** Aseguru Agentzia

Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar



**Urbat Waterpolokoak** Euskal Herriko 1. mailara igo zuten eta infantilek liga irabazi zuten.



**Igeriketako klubak** hainbat garaipen lortu ditu probintzia, Euskadi eta estatu mailan.



**Klub Deportiboko pilotariak** ohiko torneoretan jardun dute; hemen, San Juanetakoan.



**Deporreko mendizaleek** urte osoko zeharkaldi eta txango egutegia osatu dute.



**Herri-kirolak:** Ernesto eta Hodei Ezpeleta.



**Hiru-txirilo:** Eibartarrak nagusi Elgetan.



**Eskia:** Altitoyñ parte hartu zuen hirukoa.



**Triatloia:** Osoro anaiek bikain jardun dute.



**Motorra:** Aitor Monteroren erronka berria.



**Autoak:** Escuderia Eibar-ek Arana ekarri zuen.



**Tiroa:** Urteko ohiko txapelketak jokatu dira.



**Ehiza:** Iker Cenzualen San Huberto saria.

**Isasi, 31** Egunero 06.00etatik aurrera  
**943 207 737**  
 Etorri!  
 Zure etxian  
 egongo zara!!  
**KAFETEGIA OKINDEGIA**  
**SUTINDO**

**K21**  
**MUGICA**  
 ITURGINTZA  
 AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
 GAS INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
 PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
 ERREFORMAK ETA ABAR...  
**HANSGRÖHE** KANILEN BANATZAILEA  
 ZORU ERRADIATZAILEA  
 EGUZKI-ENERGIA  
**Egiguretarren, 18**  
 Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24



**Asier Cuevasen** izena eramango dute hemendik aurrera Unbeko pistek.



**Deportiboko** atletak Gipuzkoako talde onenaren saria jaso zuten denboraldi amaieran.



**Kalamua Korrikalari Taldeak** hainbat proba egin ditu, euren artean Gabon Traila.



**Debabarrena** txirrindularien taldeak elite eta 23 urtetik azpiko ekipoa atera zuen.



**Xakea:** Bigarren taldea mailaz igo zen.



**Arku:** Arkulariak-ekoek sendo jarraitu dute.



**Golfa:** Tueros txapeldun Gipuzkoakoan.



**Squash:** Ferreiro, euskal ranking-eko onena.



**Boxeo:** Ohiko jaialdia izan zen Astelenan.



**Karatea:** Hainbat klubek dihardute lanean.



**Igeriketa:** Izagirre eta Alberdi goi-goian.



**Foballa:** Maider Castillok agur esan zuen.



**Olabarria** AUTOBUSAK

**BERTOKO ETA NAZIOARTEKO TXANGOAK**

Besaide, 11. ELORRIO  
Tel. 607 - 41 06 21 (Eibar) / 94 - 623 16 47 (bulegokoa) / joxean@jolabarria.com



SI  
20



**LEHENENGO MAILA**

**FILA 1. ILARA:** XABIER IRURETAGOiena / ALEKSANDAR PANTIĆ / MIKEL ARRUABARRENA / IVÁN BORJA BASTÓN / MAURO JAVIER DOS SANTOS / SAÚL BERJÓN / JAIME JIMÉNEZ. **FILA 2. ILARA:** GERMA OSTAISKA EGIA (Medikua/Médico) / TONI RUIZ (Prestatzaile fisikoa/Preparador físico) / JOSÉ LUIS MENDILIBAR (Entrenatzailea/Entrenador) / JOSU ANUZITA (Atezainen entrenatzailea/Entrenador de porteros) / ANDONI AZKARGORTA (Analista) / MANU SÁNCHEZ. **FILA 3. ILARA:** ANTONIO LUNA / IZET HAJROVIĆ / BORJA EKIZA / TAKASHI INUI / DAVID JUNCÁ / SERGI ENRICH



Zorionak eta...

**1940** ➔

# DEIBAR 2015/2016



## PRIMERA DIVISIÓN

N RAMIS / ADRIÁN GONZÁLEZ / DANIELGARCIA / ASIER RIESGO / EDDY SILVESTRE PASCUAL /  
N ANDUEZA (Ordezkaría/Delegado) / UNAI ORMAZABAL (Fisioterapeuta) / XABIER MORENO (Fisioterapeuta) /  
ileja/Entrenador) / ALEX ARANZÁBAL (Lehendakaria/Presidente) / IÑAKI BEA (Bigarren entrenatzailea/Segundo entrenador) /  
NCHÉZ (Fisioterapeuta) / ALAIN GANDIAGA (Berregokitzzailea/Readaptador) / ÁNGEL ZAPICO (Tresnazaina/Utillero).  
/ GONZALO ESCALANTE / SERGIO GONTAN *Keko* / ANDER CAPA / MANUEL CASTELLANO *Lillo* / SIMONE VERDI.

# 2015

Urte Berri On!





**“Gogoan ditut aitag irakatsitako euskerazko abestiak”**

**G**ARBIÑE MUGURUZA bigarren postutik gertu dago tenisten munduko sailkapenean. Gabon aurretik gure artean izan zen, urtero izaten dituen hamar eguneko oporrak bere familiakoekin egoteko. Jose Antonio bere aita 26 urterekin joan zen Eibartik Venezuelara eta han jaio zen gaur egun guztien ahotan dagoen tenislaria. Aipatutako opor motzak ahaztuta, orain egun batzuk izandako lesio batetik errekupeatzeko bidean dago. Berarekin izateko aprobeztatu dugu.

**– Zer moduz gure artean pasatu dituzun egunak? Zenbatero etortzen zara?**

Euskal Herrira joateko aukera izan nuen abenduaren 4tik 6ra arte eta, nire nebarekin elkartu nintzenez, aitaren anaiak bisitatzeko aprobeztatu genuen Eibarren eta Donostian. Egia esan, ezin naiz hor egon nahi nukeen guztietan, tenista profesionalak atsedean gutxi izaten duelako. Bidaiatzen ez nagoenean entrenatzen dihardut eta urtean hamar egun baino gehiago ez dut izaten oporretarako; horiek aprobeztatzen ditut Euskal Herrira joateko. Eibarren baso erdi batzuk hartzeko aukera izan genuen zapatu arratsaldean, osaba-izeba eta lehengusu-lehengusiñekin, eta ondo egon zen txikiak ginenean istorioak gogoratzeko.

**– Lehiatzen hasi zara berriro? Zein erroka dituzu epe motzera? Olinpiadak bai ikuspuntuan?**

Dagoeneko Australian gaude, datorren artean Melbournen jokatzeko den Australiak Openari ekiteko asmoz. Torneo garrantzitsuenetakoa da, Grand Slam-etako bat. Askotan galdetzen didate nire erroken inguruan, baina nik nahikoa dut egunero gogorlan egitearekin, hobetzeko eta bilakaera izateko. Lesioek errespetatzen banaute, torneonetan maila gorena emateko itxaropena dut. Bestalde, urte olinpikoa da eta ilusioa dut Rion izateko. Tenistaren bizitza oso bakartia da eta lehiaketak asko eskatzen dizu: gurea

ez da liga bat, hemen galtzen baduzu kanpora zoaz... Horregatik, Olinpiadetako esperientzia bizitzea, espiritu olinpikoa ezagutzea, herrialde bat ordezkatzeko... berezia izan behar da. Han egotea espero dut!

**– Zelakoa zara kantxan? Zeintzuk dira zure indarguneak? Zertan hobetu behar duzu oraindik?**

Uf!!! Oso erasokorra naiz, nire gorpuzkerak ere horretara bultzatuta. Garaia eta indartsua izateak laguntzen badit ere, aldi berean baldintzatzen dit; horregatik, nahiago dut puntuari abiadura ematea aurkariaren akatsaren zain egotea baino. Beti dago zer hobetzerik!!! Buruan dago askotan kirolaren gakoa, eta gurean gehiago. Presio egoerkin jokatzen jakitea garrantzitsua da eta horretan partidu eta eszenategi handiek lagunduko didate lasaitasun gehiago izaten horrelakoetan.

**– Zein ezaugarri izan behar ditu tenista on batek? Banaka jokatzeak bere zailtasunak izango ditu, ezta?**

Lan egiteko ahalmena, talentua eta konfiantza dira beharrezkoak. Norberaren buruan sinestea beharrezkoa da. Eta nik badaikit umiltasunez lanean jardunez gero gauzak ateratzen direla.

**– Binaka jokatzen banaka bezain beste gozatzen duzu. Modalitate bietan diharduzu, eta maila onean gainera.**

Binaka dibertigarriagoa da, tentsio gutxia

go dagoelako eta zure lagunaren osagarria zarelako. Zuk une txarra baduzu, bikotekideak lagundu zaitzake... Gainera, beste gauza batzuk probatzeko balio dezake; esaterako, sarera igotzeko.

**– Zure bidea egiterakoan, norbaitengan fi-jatu zara? Idolorik izan duzu, tenisean edo beste kirol batean?**

Kirolari askotan fijaszen naiz. Serena Williams-ek Grand Slam askotxo irabazi ditu dagoeneko eta, hasi nintzenetik, erreferentea izan da niretzat. Baina kirolari askoren detalletan erreparatzen diet eta horrek asko laguntzen du.

**– Emakumezkoen kirolari dagokionez, tenisa izan daiteke hobetoen tratatzen zaituenetakoa bat?**

Zalantzarik gabe, emakumezkoen tenis profesionala gehien garatu denetakoa da. Mundu mailan bikain antolatuta dagoen zirkuitu profesionala daukagu, mundu guztiko jendea erakartzen duena. WTA Tour-ak asko egin du kirol honengatik eta, bai, beste kirolerako eredia izan daitekeela uste dut.

**– Zure euskerazko izenetik aparte, zelako harremana duzu euskerarekin?**

Aita euskalduna denez, euskera txikitatik bizi izan dugu, han Venezuelen. Ezagutzen ditut hitz bakan batzuk, baina batez ere euskerazko abestiak dira geratu zaizkidanak, etxean txikitan gitarrak lagunduta abesten genituenak.



## Bolunburu Oroigarri krosa jokatu da domekan

Bederatzi lasterketek osatuko dute 66. edizioko egitaraua, hiru ordutan jokatu den Bolunburu Oroigarria. Eibarko Klub

Deportiboak antolatzen duen probaren lasterketa nagusiak 11:15ean (emakumezkoak) eta 11:40an (gizonezkoak) jokatu dira.

Aurretik bi jokatu dira: 10:30ean, 3.800 metroko distantzian, emakumezkoen juniorrek eta gizonezkoen kadete eta beteranoek korrituko dute; eta 10:55ean, 2.800 metro egiteko, kadete, jubenil eta beterano mailako emakumezkoek jardungo dute. Maila absolutuko emakumezkoen lasterketak 5.100 metro izango ditu eta gizonezkoenak 8.500. Horien ondoren infantil eta alebin mailako lasterketak jokatu dira eta, amaitzeko, Eibarko benjaminen aukera izango da.



## Athletic-Eibar ikustera joateko bidaia antolatuak

Astelenetik daude salgai Txurrit tabernan urtarrilaren 24an Bilbora trenean joateko txartelak, Trenak 08:45ean eta 09:00etan irtengo dira Ardantzatik Bilboko Atxuriko tren-geltokiraino joateko. Txartelaren prezioa 5 eurokoa da (joan-etorria) eta itzulera 18:30ean izango da Atxuritik. Bilbon Arriaga antzokiaren aurrean elkarretaratuko dira 10:15ean eta, ondoren, kalejira egingo dute San Mameseraino, Lambretta Klubaren laguntzarekin.

Premier Bidaiek-ek, bestalde, autobusez egiteko bidaia antolatu du domeka horretako eguerdiko 12:00etan jokatu den partidurako. Autobusak 09:00etan irtengo dira Eibartik eta 17:30ean bueltatuko, gutxia 8 eurotan. Txartel hau hartuko dutenek ziurtatuta izango dute partidurako sarrera ere.

### Txokok aurea hartu dio Durangori foball-zaletuan

Txoko da Kirolbet liga txapelketako lider berria lehen itzulia amaitzerakoan. Azken jardunaldian lider berriak 2-1 irabazi zion Kontent-i eta, Durangok Esmorgarekin 0-2 galdu zuenez, lidergoa txokotarren eskura pasatu da.

### Zikloturista-lizentzia tramitzeko aukera

Eibarko Txirrindulari Elkarteak lizentzia tramitzeko aukera eskaintzen die zikloturistei eguazteneko, 19:00etatik 20:00etara. Tramite hori hilabete honetan eta otsailean egin ahal izango da elkarteak Pagaegi 3an dituen lokaletan.

### Udaberri eta Gipuzkoako Errendimendu txapelketak

Torneo bi horietan Klub Deportiboko pilota batzordeak infantil mailako bikote bi eta seniorretako beste bi aurkeztu ditu. Bihar seniorrek Astelenan jokatu dute (19:45).

Centro de fisioterapia



Manu Sánchez



KIROL  
FISIOTERAPIAN  
ADITUAK

- Fisioterapia
- Osteopatia
- Kirol-masajea eta terapeutikoa
- Errehabilitazioa
- Kirol lesioen tratamendua
- Elektroterapia

**Txaltxa Zelaiko parkingetik 50 metrora, herriaren erdi-erdian**

Juan Gisasola, 14 • Tel.: 943 127 078 • EIBAR (Gipuzkoa)

## Ordutegi berezia liburutegian

Urtarrilaren 4az geroztik liburutegia ordutegi berezian zabaltzen dute, azterketak prestatzeko sasoia delako eta ikasleei lan horretan laguntzeko. Ikasteko zein bestelako lanak egiteko denbora gehiago izan dezaten, asteleheneetik barixakura bitartean eguerdian ere zabalik egongo da, hila-ren 22ra arte. Beraz, ordutegi berezia indarrean dagoen bitartean, astegunetan 09:00etatik 20:30era zabalduko dute. Asteburuetako ordutegian, bestalde, ez dute ezer aldatu eta ohiko ordutegian, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara zabaltzen jarraituko dute.

Urtarrilean ez ezik, ikasleentzat bereziki pentsatutako ordutegi berezia maiztzean, ekainean eta uztailean ere eskainiko dutela aurreratu dute. Bestalde, ordutegi berezia indarrean dagoen bitartean liburutegiak zerbitzu integralak (bertako fondoan irakurketa, hemeroteka, mailegua, Internet...) eskainiko dituela argitu dute.

Ordutegi berezia du liburutegiak urtarrilean.



## ADEI CUENDEREN single berria: "Contigo fui feliz"

Urte berriarekin batera single berria atera du Adei Cuende abeslari eta konpositore zuma-aiarrak. Gaurtik aurrera (urtarrilak 15), "Contigo fui feliz" kanta iTunes eta Spotify bezalako plataforma digitaletan edota [www.adeicuede.com](http://www.adeicuede.com) webgunean entzun daiteke. Adei Cuende abeslaria Eibarren bizi da, eta, oso gaztea izan arren (25 urte), urteak daramatza musika munduan gogor lan egiten. 2009an EITBko Eusko Dance lehiaketa irabazi zuen eta ahots eza-guna bihurtu zen. "Betirako", "Ero" eta "Eguneko ilusioa" euskerazko abestiak kaleratuta eta lehen kanta biekina Euskadi Gaztea eta Euskal Herriko beste hainbat irrati-zerrendetan lehen posturaino ailegatzea lortu zuen. 2013an UveEfeUve Music-en eskutik hiru abestirekin osatutako lehen album digitala, 'Imprudentes corazones' kaleratu zuen. Harrezgero bide horri jarraitu dio eta 'Love will set me free' izenburukoa zein bere lanik berriena, "Contigo fui feliz" ere formato digitaletan atera ditu gazteak.



## MIREIA ORMAETXEA LUIS

1. urteurrena: 2015-I-14

*Zure argiak, zure oroitzapenak  
eta zure irribarre eder-goxoak  
gure bihotzak argitzen dituzte.*

**BETI ZUREKIN, ZURE GURASO ETA AHIZPA**

# "Guztia ez da gerra, bizitza ere badago"

**H**orrela ikusten du **PABLO GARRIDO** elgoibartarrak Palestinako gaur egungo egoera. Bi zapatu jarraian egon zen Untzagan elkartasuna jasotzen, berak jarritako argazki erakusketa eta bideo proiektzioa lagun zituela. Aurretik bere herrian jasotakoarekin, 100 kilo arropa baino gehiago eta eskola materialeko 30 kilotik gora batu zituen Palestinara eramateko. Tailerrean zituen opor egun batzuk aprobetxatuta, Gazan apadrinatu edo babesean hartutako neskatoa bisitatzeko aukera baliatu nahi izan du eta "hango errealitatea bertatik bertara" ezagutu, aurretik ere ondo informatuta badago ere. "NATOn aurkako kanpainaren sasoian" hasi eta beti izan du herrialde menperatuen aldeko joera eta han bizi direnen egoerarekiko kezka. Hango "alde politenez" gozatzeko irrikaz joan zen.

– **Palestinako Herriari Laguntzeko Komitearen partaide zaitugu. Zer egiten du erakunde horrek?**

Gobernuz Kanpoko Erakundea da, batez ere Valentziako jendearekin osatua. Ur-putzuak irekitzen laguntzen diete palestinarrei, motxilak eta erropa bidaltzen dizkiete... eta aukera ematen dute, 8 eurorengatik, olibondoak landatzeko. "Zuhaitz bat kentzen diguten tokian hamar landatuko ditugu" sortu duten azken kanpainaren barruan dago hori.

– **Bidaia planifikatuta duzu? Han itxarongo zaituzte...**

Bai. Eguaztenean Ammanera iritsiko naiz eta han beste GKE bat izango dut zain. Euren

txalekoarekin jardungo dut batetik bestera, badaezpada. Hortik Hebroneko errefuxiatu umezurtzen kanpalekura joango naiz. Guztira, hamabost egun emango ditut han eta, modu batean edo bestean, Gazan ere izango naiz.

– **Han neskato bat duzu apadrinatuta, ezta? Ezagutzen duzu?**

Ez, oraindik ez. Urteak dira babesean hartu nuela eta leuzemia du. Berarekin eta bere familiarekin posta bidezko harremana dut eta gustatuko litzaidake eurekin egotea.

– **Bertako azken berriek zer diote?**

Egoera penagarria da. Jende gehiena ur eta argi barik bizi da

*Pablo Garrido Untzagan kokatutako postuan. Elkarrizketa Gabon aurretik egin genion. LEIRE ITURBE*



Gazan. Ghetto antzerakoa ezarri zaie bertokoei, Alemania nazian bizi izan zutenaren antzera. Gezurra dirudi handik beste ikasgairik ez jasotzea. Baina, hala eta guztiz, badakit Gazan bertan alde politik badagoela eta hori bizi nahiko nuke.

– **Komunikabideetatik hango berri zuzena jasotzen dugula esango zenuke?**

Mass mediak eragin zuzena dute jasotzen dugun sentsazioetan. Gaur egun sare sozialak zabalagoak dira eta interesa duenak bai jaso dezakeela han benetan gertatzen dena. Zeozertarako ditugu Facebook eta halakoak.

– **Pozik zaude gure artean aurkitu duzun laguntzarekin?**

Jendea kezkatuta dago gaiarekin eta, bai, material nahikoa eman didate. Ez hori bakarrik, batzuk dirua ere eman didate, hango ospitaleetan dituzten beharrak arintzeko.

– **Nazioartean ikusten duzu girorik Palestinako arazoari irteera zuzena emateko?**

Askotan laguntza gehiago jasotzen du Mendebaldetik arabiar mundutik baino. Nazio Batuen Erakundea ere, hobe desegiten bada, beto eskubi-dea indarrean dagoen bitartean ez duelako ezertarako balio. Gerra hotzak indarrean jarraitzen du. Palestinako herria ingurukoa baino irekiagoa izan da beti eta horretaz aprobetxatu dira batzuk.

## MILA ARRIETA ZUBIMENDI

(2. urteurrena: 2014-I-15)

**"URAK DAKARRENA  
URAK DAROA  
ZUK EMANDAKOA  
GUREKIN GERATZEN DA"**





**JOSEBA CASASOLA**  
(argazkilaria):

## "Fantasia eta efektu bereziak ikaragarri gustatzen zaizkit"

Gaur arratsaldean, 19:00etan zabalduko du "Argia + Itzalak + Fantasia" izenburuko erakusketa Joseba Casasolak Topalekuan, Arrate Kultur Elkartearen erakusketa-aretoan, sormen eta fantasiaz gainezka egiten duten hogeit hamar argazkirekin. Argazkilaria eibartarrarentzat lehen erakusketa izango dena urtarrilaren 24ra arte egongo da ikusgai, astelehenetik barixakura 19:00etatik 21:00etara eta zapatu eta domeketan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

### - Nolako erakusketa prestatu duzu Topalekurako?

Orain dela hamar bat urte ekin nion ezkontzetarako argazkiak egiteari, baina aspalditik nuen eguneroko behar horretatik aldentzen den zerbait egiteko gogo eta, azken hilabeteotan horretarako aukera izan dudanez, lan horren emaitzarekin prestatu dut erakusketa. Urtebete eman dut batetik bestera argazkiak egiten, modelo moduan jardun duen lagun batekin batera, margo fluoreszentearekin eta bestelakoekin esperimentatzen, fantasia kutsua duten irudiak lortzeko. Lan handia egin dugu, baina oso esperientzia polita izan da. Efektu berezien inguruko ikasketak egin nituen eta

hori da benetan erakartzen nauena. Kontua da argazkilaria moduan beharrean aurrera egiteko dirua ematen duten lanak egin behar direla eta nik ezkontzetako argazkiekin horretarako bidea aurkitu dut eta horrelako argazkiak egiten ere asko disfrutatzen dut.

### - Argazkiak ordenagailuan lantzeko arazorik ez daukazu, ezta?

Bat ere ez. Argazkiak egiteko orduan ideia, materiala eta beste kontu guztiak garrantzitsuak dira eta, gainera, askotan jendeak ikusten ez duen aurrean bat egoten da atzetik. Argazki bakarra egiteko hiru ordu eman ditzaket, baina ordenagailuan argazki bakarra lantzen egunak eta egunak ematen ditut, gustora gaine-

ra. Bestalde, ez da gauza bera argazki eskas bat hartu eta hori hobetzeko ordenagailuan lantzea edo berez ona den argazki bati ukituak ematea, zuk ikusi nahi duzun hori lortzeko.

### - Nolatan ez duzu orain arte erakusketarik egin?

Egia esateko, ezkontzetan-eta argazkiak ateratzen ibiltzeak lana ematen du, eguneroko beharrari denbora asko eskaini behar zaio eta benetan erakutsi nahi nuen lan berezirik ez nuen. Baina, lehen laburmetraia 16 urterekin egin nuenetik urte mordo igaro dira eta, azkenean, lagunek animatuta erakusketa prestatu dut proiektu berezi honen emaitza jendeari erakusteko.

## San Andres rallyko sariak

Arrate Kultur Elkarteak antolatutako I. San Andres Rallyaren irabazleek aurreko astean jaso zuten saria, Topalekuan. Helduen mailan lehena Federico Cuencak eskuratu zuen eta bigarrena Fernando Retolazak; 12-18 urte bitartekoen mailan Jon Martinez Agirrebeña saritu zuten eta 12 urtetik beherako partaide guztiei opari bana eman zieten. Epaimahaikideek aurkeztutako argazki-multzorik onenak aukeratu dituzte eta irabazleei sariak banatu aurretik parte-hartzaileen lanak proiektatu zituzten.




## UEU-ren ikastaroak

Udako Euskal Unibertsitateak hainbat ikastaro antolatu ditu datozen hilabeteetarako eta horietan izena emateko epea zabalik dago. Otsailean hasiko diren ikastaroetako bat, "Gure imaginarioa kantagintzaren bitartez" izenburuko Eibarren, Markeskua jauregian izango da, otsailaren 20tik maiatzaren 21a bitarteko zapatuetan (09:30etik 14:30era). Eskaintza guztia kontsultatzeko zein matrikula betetzeko [www.ueu.eus](http://www.ueu.eus) webgunean sartu.



## Urtarrileko argazki-erakusketak

Deportiboko Argazkilaritza Taldeak antolatuta, honako argazki-erakusketak egongo dira ikusgai urtarrilean: Jose Ignacio de Castroren "Sandra" Portalea jatetxean, Joan Buxoren lanena Ambigu tabernan eta Almenerako argazki-taldearen erakusketa kolektiboa Depor tabernan.





## Portalean "Gurutzatzen diren bizitzak"

Gaur arratsaldean inauguratuko dute "Gurutzatzen diren bizitzak", Xose Lois Carreira eta Iñaki Aranzabal artisten erakusketa Portalean. Txikitako bi lagunek musika, literatura eta arte plastikoak biltzen dituen diziplinen arteko proposamenarekin datoz, dozena bat miniatura literario-historikoz osatutako erakusketa-katalogoarekin. Proiektuak helburu solidarioa dauka, liburuaren (formatu fisiko zein digitalean) salmentatik zein ikusgai ipini dituzten obretatik jasotako dirua Espainiako Mugarik Gabeko Medikiak Gobernu Kanpoko Erakundeari emango diote eta. Otsailaren 7ra arte zabalduko dute, ohiko ordutegian (martitzenetik domekara 18:30etik 20:30era).



## "SkizopozikS" umorezko bakarrizketa

Markos Gimeno Vesgak (Markus-ek) "SkizopozikS. Errezitaldi hitzperimentala" umorezko bakarrizketa bikaina eskainiko du urtarrilaren 27an, 19:00etan Portalean (areto nagusian), ...eta kitto! Euskara Elkar-teak antolatuta. 2007an Zerorajaso proiektua abiatu zuenetik, Markusek euskarazko palindromoak (testu kapikuak) sortu eta plazaratu ditu zerorajaso.com blogean, irakurleei asteleheneroko AZA (palindromo ariketa) erronka planteatuz. Baina, horrekin batera "hitzperimentutan", tartean "SkizopozikS" errezitaldiaren ardatz diren "Eskizoberbak" lantzen ere ibili da. Bere berbetan "hitz-joko bereziak dira, euskaraz eta gaztelaniaz modu homofoniko, eskizoide eta dibertigarrian jolasten duten "poemak".

## Sanblas ikastaroa eta lehiaketa

Arrate Kultur Elkar-teak San Blas ikastaroa eta lehiaketa antolatu ditu aurten ere. Ikastaroa urtarrilaren 30ean izango da, 10:00etan eta parte hartzeko alde aurretik izena eman beharko da, 943202299 telefonora deituta (bulego ordutegian) edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzita. Lehiaketa, berriz, otsailaren 3an egingo da eta parte hartzera animatzen direnek etxean egindako sanblasak Arrate Kultur Elkar-terera eraman beharko dituzte, 17:00etatik 19:00etara (erabakiaren berri 20:00etan emango dute).



## Taxi-gidari baten komeriak

Hilaren 22an "Taxi" antzezlan eskainiko du Pentacion taldeak, 20:30ean Coliseoan (18 euro). Protagonista itxuraz bizitza lasai eta monotonoa duen taxi-gidaria da, baina antzezlan ikustera doazenek behala ikusiko dute errealitatea oso bestelakoa dela, taxi-gidaria emakume birekin batera ezkondu da goelako eta, gainera, bakoitzarekin auzo ezberdin batean bizi da. Lanaren zuzendariak Josema Yuste eta Alberto Papa-Fragomén dira eta antzezleak, berriz, Yuste bera, Alfredo Cernuda, Felisuco, Esther del Prado, Diana Lazaro eta Javier Losan.



## Ignacio Unanue Ostolaza

IV. URTEURRENA (2012-I-12)



**Lau urte zu juañ zifñala, baiña gure oroitzapenetan egongo zara beti.**


ZURE FAMELIXIA





## Ludoteka berria martxan

Astelehenean zabaldu zituen atek Jazinto Olabe ludoteka berriak, Haur Hezkuntzako 3. mailatik Lehen Hezkuntzako 6. mailara bitarteko haurrei zerbitzua emateko. Astelehenetik barixakura zabalduko dute, arratsalde, umeen adinaren arabera ezarri duten ordutegian: 16:30etik 18:00etara 5-7 urte bitartekoentzat eta 18:00etatik 19:30era 8-11 urte bitartekoentzat, eta erabili nahi duenak ludotekan bertan eman dezake izena (ikasturte osorako prezioa 50 eurokoa da 5-7 urtekoentzat eta 75 eurokoa, berriz, 8-11 urtekoentzat). Asmo nagusiak "aisialdia euskaraz gozatzeko eta bizitzeko eskubidea bermatzea, haurrak astialdiaz modu aktiboan, sortzailean eta osasungarrian gozatea eta gurasoei haurren heziketarekiko sortzen zaizkien zailtzak argitzen laguntzea" dira eta jendea ludotekara joatera animatu nahi dute, eskaintza bertatik bertara ezagutu eta, gustatuz gero, izena emateko.



## Familia osoarendako antzezlan


Bihar arratsaldean, 17:00etan "Amour" umeendako antzezlan taularatuko dute Marie de Jongh konpainiakok, Jokin Oregiren zuzendaritzapean. 2008an sortua, Marie de Jongh familia osoari zuzendutako antzerkigintzan sendotzen ari den erreferentea bilakatu da. Lanean parte hartuko duten antzezleak Ana Meabe, Andurina Zurutuza, Ana Martinez, Javi Renobales eta Pablo Ibarluzea dira. "Amour" 7 urtetik gorako umeentzat gomendatutako lana da, "familia osoa batera antzerkira joateko moduko antzezlan" dela diote. Gabonetan Bilboko Arriagan estreinatu zuten eta aurreko asteburuan Donostian erakutsi eta gero, biharkoa hirugarren emanaldia izango da. Sarrerak 5 euro balio du.

## Euskerazko irakurketa-talde digitala

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareak eta Euskal Idazleen Elkarteak eRakurleak, eLiburutegiko euskal literaturaren irakurketa-talde digitala abiatu dute eta astelehenean horren berri eman zuten, "Harixa Emoten"-en saio berezian. Egitasmoarekin zerikusia duen guztia interneten, proiektuaren blogean (<http://liburutegiak.blog.euskadi.net/e-rakurleak/>) jasotzen joango dira eta, horrez gain, irakurketen inguruko berriak, komentarioak eta ariketak bideratze-



ko Twitter kontua (@erakurleak) eta Facebook-en orrialdea sortu dituzte. Parte-hartzaileek hileroko liburu bat irakurriko dute: "Hilaren hasieran idazleari buruzko informazioa eta bestelakoak argitaratzen joango dira eta hilaren amaieran, berriz, parte hartzea eskatzeko dinamizazio-ekintza sorta zabalduko da, blogaren eta Twitter kontuaren bitartez burutzeko". Izena emateko zein harremanetarako erakurleak@gmail.com helbidera idatzi daiteke.



## MARCELINO GOIKOETXEA MUNDUATE

(I. urteurrena: 2015-I-15)




**Trikiti ta bertso  
Irrifarra beti aurreko  
Zure bizitzaren xarma hori  
Gure bihotzetan betiko**

**ZURE FAMILIAK EZ ZAITU AHAZTEN**

### Gaitze+ Hell Division Soraluzen

Gaur 22:30etik aurrera Gaitze eta Hell Division taldeen kontzertua hartuko du Soraluzeko gaztetxeak. Gaitze abiadura handiko hardcore eritmoetan sakontzen duen Azpeitiko taldea da, Karkaba taldearen errautsetatik sortutakoa eta Hell Division talde donostiarrak, berriz, D-beat eta crust eritmoak lantzen ditu.



### Goyo magoa Elgetan


Bihar arratsaldeko 17:00etan Goyo mago-mimoak "Txirriski-mirriski" ikuskizuna eskainiko du Elgetako Espaloia kafe antzokian. Sarrerak 4 euro balio du (3 euro aldeztu aurretik erosita).



### Kontzertua Ermuko Eskilarapekon

Ermuko Eskilarapeko Ateneoak kontzertua antolatuko du biharko, "11 urte 11 ekintza" urteurrenaren harira. 19:30etik aurrera Patxi Dinamita, Garrapata eta Blood Brothers taldeak zuzenean entzuteko aukera izango da Orbe Kardinala plazan dagoen tabernan.

### eguraldia (EUSKALMET.NET)



### hildakoak

- Josefa Hernandez De la Cruz. 82 urte. 2015-XII-29.
- Jose M<sup>a</sup> Cuende Larrañaga. 92 urte. 2015-XII-29.
- Maddi-Begoña Ugarte Urrexola. 52 urte. 2015-XII-29.
- Agustin Gorrotxategi Zubizarreta. 95 urte. 2015-XII-30.
- Hortensia Revilla Madrazo. 94 urte. 2015-XII-30.
- Juan Andres Zurikarai Atxorbea. 82 urte. 2015-XII-31.
- Jon Arruabarrena Garcia. 29 urte. 2015-XII-31.
- Enrique Nazabal Gorostegi. 83 urte. 2016-I-1.
- Conchita Cascallana Ferreras. 89 urte. 2016-I-2.
- Manuela Justo Pousa. 55 urte. 2016-I-2.
- Angel Martinez Perez. 66 urte. 2016-I-4.
- Jose Urzuriaga Ugarteburu. 82 urte. 2016-I-4.
- Simon Lopez de Gereñu Jauregi. 102 urte. 2016-I-9.
- Jose Idigoras Kortaberria. 78 urte. 2016-I-9.
- Jose Ignacio Urkola San Martin. 83 urte. 2016-I-10.
- Anton Albizua Lasarte. 66 urte. 2016-I-10.
- M<sup>a</sup> Ignacia Gorrotxategi Egia. 86 urte. 2016-I-13.

### jaiotakoak

- Hanae Akhrif. 2015-XII-22.
- Mohamed Anas Chiliah. 2015-XII-23.
- Hasnain Ali Subhani. 2015-XII-24.
- Paul ramirez Rico. 2015-XII-24.
- Natalia Torres Solares. 2015-XII-25.
- Axel Marin Gomez. 2015-XII-27.
- Jare Perez Delgado. 2015-XII-28.
- Bittor Unamuno Torre. 2015-XII-28.
- Luka Fernandez Pulido. 2015-XII-29.
- Liher Martin Buendia. 2015-XII-29.
- Jon Tudanca Medina. 2016-I-2.
- Andeka Toral Landakorta. 2016-I-4.
- Malen Unamunzaga Baztarrika. 2016-I-5.
- Xabier Unamunzaga Baztarrika. 2016-I-5.
- Nadir El Kadi. 2016-I-7.

### farmaziak

- Barixakua 15**  
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- Zapatua 16**  
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- Domeka 17**  
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- Astelehena 18**  
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- Martitzena 19**  
EGUNEZ **Castafio** (J. Etxebarria, 7)
- Eguaztena 20**  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Eguena 21**  
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- Barixakua 22**  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

GAUEZ BETI - 2016AN-  
Iraundegi (Calbeton, 19)

### telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora .....	010
Udaletxea .....	943 70 84 00
Portalea .....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa .....	943 82 01 10
KIUB .....	943 20 38 43
Epaitegia .....	943 03 34 00
Iberdrola .....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa .....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza .....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak .....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen.....	650 26 59 63

### SUDOKUA

7	9	5			
			6	7	
	1	7		5	6
		9			2
8	2				7 3
3			4		
6	2	9		8	
	3	4			
		6	1		4

4	9	1	8	5	3	6	2	7
3	8	7	6	9	2	4	1	5
2	6	5	4	7	1	9	8	3
8	3	2	5	4	7	1	6	9
7	5	6	9	1	8	3	4	2
1	4	9	3	2	6	5	7	8
6	2	3	1	8	5	7	9	4
9	1	8	7	3	4	2	5	6
5	7	4	2	6	9	8	3	1

AURREKOAREN EMAITZA

**Barixakua 15****GAZTELEKUA**

**16:30.** Debako gazteleku-koen bisita (musika, dantza, karaokea, Play-Wii). Indianokuan.

**Zapatua 16****WORKSHOP-A**

**10:30/14:00 eta 15:30/**

**18:30.** "Sinpatron" modaren ingurukoa, Alberto Etxebarrietaren eskutik. Biharrian sormen espazioan (Ubitxa, 16-18).

**ASTELENA HAUR PARKEA**

**11:00/14:00 eta**

**16:30/20:30.** 2-12 urte bitarteko umeentzat. 3 euro. Astelena frontoian.

**ANTZERKIA**

**17:00.** "Amour" (Marie de Jongh) umeendako antzezlan. Coliseoan.

**GAZTELEKUA**

**17:00.** Karaokea. Indianokuan.

**KIROLA FAMILIAN**

**17:30.** 2-5 urteko haurrak dituzten familiendako. Ipurua kiroldegian.

**UMEENDAKO TAILERRA**

**18:00.** Egutegia egiteko. El Corte Inglesean.

**PROIEKZIOA**

**19:00.** "Emak bakia!" filma eta Oscar Alegria zuzendariarekin mahai-ingurua. Biharrian sormen espazioan (Ubitxa, 16-18).

**Domeka 17****BOLUNBURU OROIGARRIA**

**10:30.** LXVI. krosa, Klub Deportiboko Atletismo Batzordeak antolatuta.

Lasterketa nagusiak: 11:15ean (emakumeak) eta 11:40an (mutilak). Arraten (Olabeko zelaian).

**MARRAZKI-LEHIAKETA**

**16:30.** Gabonetakoa eta txokolate-jana, 6-12 urte bitarteko umeentzat. As Burgas Galiziako Etxean.

**GAZTELEKUA**

**17:00.** Mahai-jolasak. Indianokuan.

**KIROLA FAMILIAN**

**17:30.** 2-5 urteko haurrak dituzten familiendako. Ipurua kiroldegian.

**Martitzena 19****IKASTEN**

**10:00.** "Gerra sainduak (1. zatia)" hitzaldia, Koldo Ortega. Armeria Eskolan.

**IKASTEN**

**16:00.** Puntu-tailerra.

**16:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

**HITZALDIA**

**19:00.** "Berrikuntzaren alorrean etorkizunerantz begira. Bideragarria al da?", Juan de los Angeles C4E Consulting Services-eko zuzendariaren eskutik, Aldatzek antolatuta. Armeria Eskolan.

**Eguaztena 20****IKASTEN**

**11:00.** Kafe-tertua: "Nagusia izaten ikasi". Untzaga jubilatuetxean.

**EIBARKO KANTUZALEAK**

**19:00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

**Eguena 21****IKASTEN**

**10:00.** "Musika zineman (2. zatia)" hitzaldia, Marina Lertxundiren eskutik. Armeria Eskolan.

**KALEETAN KANTUZ**

**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

**erakusketak**

Urtarrilaren 24ra arte

**Joseba Casazolaren "Argia+itzalak+fantasia"** argazki-erakusketa. *Topalekuan.*

Urtarrilaren 31ra arte

**Joan Buxo-ren** argazki-erakusketa. *El Ambigú kafetegian.*  
**Almenarako argazki taldearen** erakusketa. *Deportiboan.*  
**Iñaki Campos-en "Metronomos"** argazki-erakusketa. *Portalea tabernan.*  
**Iñaki Campos-en rock-taldeen** argazki-erakusketa. *Ez Dok tabernan.*

Otsailaren 7ra arte

**"Gurutzatzen diren bizitzak" Xose Lois Carreira eta Iñaki Aranzabalen** erakusketa. *Portalean.*

2016ko abendura arte

**Jose Luis Apraizen arma-bilduma** erakusketa. *Armagintzaren Museon.*

**zineaColiseoan**

(1 ARETOAN)

**16an: 17.00, 19.45, 22.30**  
**17an: 17.00, 20.00**  
**18an: 20.30**

**"Macbeth"**

Zuzendaria: Justin Kurzel



(2 ARETOAN)

**16an: 19.45(ANTZOKIAN), 22.30**  
**17an: 17.00, 20.00**  
**18an: 20.30**

**"Sufragistas"**

Zuzendaria: Sarah Gravon



(ANTZOKIAN)

**16an: 19.00(2 ARETOAN), 22.30**  
**17an: 20.00**  
**18an: 20.30**

**"Los odiosos ocho"**

Zuzendaria: Quentin Tarantino



(2 ARETOAN)

**16an: 17.00**  
**(ANTZOKIAN)**  
**17an: 17.00**

**"The Snow Queen"**

Zuzendaria: Maxim Sveshnikov





**Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**



Urte zaharrak opari edarra laga desku, gure txikixa famelixara helduta. Zorionak Asier eta Malen eta ongi etorri, JARE! Patxo bana!!!



Zorionak, AINHOA, bi urte bete dozuz-eta. Muxu potolo bat aitxixa, amama, izeba-osabak, Nora eta amatxoren partez.



Zorionak, HODEI, hillaen 9xan hiru urte egin zenduaz-eta. Muxu haundi bat famelixaren eta, batez be, Ametsen partez.



Zorionak, IZASKUN, hillaen 6xan urtiak bete zenduaz-eta. Laztan haundi bat famelixa eta lagun guztien partez.



Zorionak, LUKA, printses! Hillaen 20xan lau urte beteko dozuz-eta. Patxo potolo bat danon eta, batez be, Aneren partez.



Zorionak, GARAZI, aurreko domekan lau urte bete zenduaz-eta. Patxua etxekuen eta, batez be, zure ahizpa Juneren partez.




Zorionak, MALEN!, gaur lau urte betetzen dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, UXUE, hillaen 6xan 10 urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, IRADI, hillaen 11n sei urte egin zenduaz-eta. Beste sei muxu haundi etxekuen partez.



Zorionak, JON! hillaen 7xan 10 urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat etxeko guztien partez.



Aupa, MIKEL, txapeldun! Lau urte bete dozuzeta-eta, muxu haundi bat Nerea eta famelixaren partez.




Zorionak, ANER, pitxin, atzo bost urte egin zenduaz-eta. Muxu haundi bat danon partez.



Zorionak, NADIA, astelehenian zazpi urte egingo dozuzelako. Famelixaren partez.




Zorionak, IÑIGO eta IKER, bixak urtiak bete dozuez-eta. Laztan haundi bana famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MARA (sei urte abenduaren 15ian), ALAIN (hiru urte abenduaren 17an) eta aitaxo TXOMIN (42 urte urtarrillaren 12xan), etxeko eta famelixako guztien partez.



Zorionak, LUCAS (abenduaren 31n, 9 urte) eta DANEL (urtarrillaren 2xan, 10 urte). Gure foballarixak aurrera doiaz! Muxu pillua danon partez. Aupa, Eibar!



Zorionak, EKHI eta GORKA, hillaen 3an eta 8xan urtiak bete dozuez-eta. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, Eñauten partez.



Ongi etorri, BITTOR, abenduaren 28xan gure artera etorri ziñalako. Etxekuen eta, batez be, MADDIren partez. Maittasunez!



Zorionak, SABRINA, haraiñegun 10 urte bete zenduaz-eta. Laztan haundi bat famelixa guztiaren partez.

**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 637-363778.
- 3 logelako pisua alokagai Eibarren, Ipurua auzoan. Haurrak dituztenentzako aproposa. Tel. 636-221469.
- 3 logelako pisua alokagai Eibarren. Kalefazioarekin. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldaria eta terraza (itsasoari begira). Hamabostaldietarako (otsailetik ekainera arte). Tel. 645-728317 eta 943-201294.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. Merke. Tel. 632-192408.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 689-571882.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Taberna traspasatzen da Eibarren. Oso merke. Tel. 651-706981.

### 3.2. Errentan

- Bi lokal alokagai Arrasaten (bat jantzitza), Estetika, masajeak, psikologoa, tatuatzailea... hainbat aukeratarako aproposak. Tel. 603-723219. Aitor.
- Garajea hartuko nuke alokairuan Errebal inguruan. Tel. 622-107353.
- Garajea itxia salgai Matsarian. 21.000 euro. Tel. 661-377537.
- Marbxan dagoen ileapaindegia alokatzen da Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-417946.
- Gizonezkoa eskaintzen da garbiketarako, sukaldari-laguntzaile jardun eta nagusiak zaintzeko. Tel. 610-865694.
- Emakumea eskaintzen da tabernak, soziedadek eta pegorak garbitzeko. Tel. 638-421827 eta 636-841158.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 692-258870.
- Neska euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-623978.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 679-912841.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-506373.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Gidatzeko baimenarekin. Tel. 631-343232.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu, sukaldari-laguntzaile jardun eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-562380.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 638-338816.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak (baita gaez ere) edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 679-910991.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 626-197217.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 634-863034.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 663-524539.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 686-561811.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 686-064608.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 943-744033 eta 637-102725.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu, garbiketarako egin eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 634-437852.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaindu, garbiketarako egin eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 662-099453.
- Mutilla eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Geriatriako titulua eta gidatzeko baimenarekin. Tel. 655-132769.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-766652.
- Neska eskaintzen da goizez nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 688-287983.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-425686.
- Neska eskaintzen da pegorak, etxeak, tabernak, soziedadek... garbitu eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-070225.
- Neska eskaintzen da tabernetan lan egin eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-962653.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 682-277198.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 602-369696.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko astean zehar. Tel. 637-071779.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 661-001246.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldean (baita gaez ere) nagusiak laguntzeko. Tel. 631-765443.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 634-292969.
- Gizonezkoa eskaintzen da sukaldari-laguntzaile edo kamarero jarduteko, nagusiak zaintzeko etb. Tel. 634-292969.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko-lanak egiteko. Tel. 629-817299.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Erreferentziak. Tel. 631-910326.
- Erizaintza tituludun emakumea eskaintzen da interna lan egiteko. Erreferentziak. Tel. 631-062022.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 617-169277.
- Neska eskaintzen da orduka nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 633-808931.
- Emakumea eskaintzen da dendan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 639-423493.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta dendan laguntzeko. Tel. 632-426847.
- Gizona eskaintzen da edozein motatako lanetan jarduteko: lantegian, garbiketarako, denda... Tel. 602-845202.
- 19 urteko neska arduratsua eskaintzen da arratsaldeetan eta asteburuetan umeak zaintzeko. Tel. 688-633677.
- Mutilla eskaintzen da nagusiak zaintzeko.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 633-101852 eta 631-282203.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Esperientzia. Tel. 632-441528 eta 634-437852.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-070225.

## 4.2. Langile bila

- Neska euskalduna behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 646-616608.
- Esperientziadun zeramista behar da Eibar-ko hortz-klinika batean. Tel. 943-700082.
- Banatzailea behar da Txikian. Gida-baimenarekin. Tel. 686-913746.
- Emakumea behar da interna lan egiteko. Egutero hiru ordu libre (17:00-20:00) eta asteazken eta ostegunetan sei (10:00-16:30). Tel. 617-652130. Diana edo Aitor.

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskaerak

- Katalan klaseak jasoko nituzke. Tel. 686-482364.

### 5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematika etabar ematen dut. 1-3 ikasleko taldeak. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Binilozko diskoak, LP-ak eta singleak erosten ditut. Tel. 943-572057.
- 1'50 metroko ohea salgai, gereziendoko egurrekin egindakoa. Egoera onean. 480 euro. Tel. 635-009554.

### 6.2. Eman

- Lokal baterako altzari eta sofa batzuen bila gabiltza. Soberan badituzue, deitu. Tel. 618-559191.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

- Trapuzko kopina agertu da Correosen. Tel. 660-511773.



## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

# MATRIKULA ZABALIK

16 urtetik gorakoentzat



- Maila guztietako euskara ikastaroak

1. MAILA		2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA	
A1	A2	B1	B2	C1	C2

- Azterketa prestakuntza
- Autoikaskuntza: BOGA programa (Tutoretzak eta mintzasaiolak)
- Titulu ofizialak

ordutegi zabala

TARIFA BEREZIAK (kotsultatu)

AURTEN LANGABETUEK ETA IKASLEEK ERE %50EKO DESKONTUA

*Eibarko Udal Euskaltegia*

Bista Eder, 10 -PORTALEA-

[euskaltegia@eibar.eus](mailto:euskaltegia@eibar.eus)

Tfnoa: 943 70 09 12

Faxa: 943 82 00 89



UDAL  
EUSKALTEGIAK  
euskara klaseak • clases de euskera



CURSO **15/16** IKASTURTEA



Arragueta, 20 - behea  
943 530642

**FISIOTERAPIA**

ZENTRUA

Ane Mendiá

970 kol. zkia.



Indiba terapia

Kirol lesioak

Masajeak

Tendinitisak

Bizkarreko minak

Esginzeak


Etxez-etxeke zerbitzua



[ane\\_mendia@hotmail.com](mailto:ane_mendia@hotmail.com)



UNBE



ORBEA



**PADELPISTAK**



**IGERILEKUA**



**TENISPISTAK**



**SPA**



**ZORIONAK!**

**eta**

**2016.**

**URTE**

**Kirolari**

**XOM!**



**Eibarko Kirol Patronatoa**  
Patronato Municipal de Deportes de Eibar

